

IRAK OKUPATUTA, ETA GU?

Zornotza (2005.3.3)

Azken boladan Irakeko okupazioaren eta bertan ospatuko diren hauteskundearen inguruko berri ugari entzuteko aukera izan dugu. Hauteskunde hauen aurrean gehiengoaren jarrera nabarmena izan da; badirudi jende askok argi ikusten duela Irakek bizi duen egoeran hauteskundeak ospatzea zentzugabekeria dela, ezin baita hauteskunderik ospatu okupazio egoera batean, hain juxtu okupatzaileek antolatutako hauteskundeak izaten direlako.

Harrigarria iruditzen zait Euskal Herrian makina bat aldiz gertatzen den egoera bat izanik, horrelako ondorioak ateratzeko Iraki begira egon behar izatea, eta ez hori bakarrik; gainera ondorio hauek guretzat ere aplikagarriak direla ez konturatzea. Ez al dugu guk ere okupazio egoera bat bizi? Behin eta berriro antolatzen dizkigute gure okupatzaileek hauteskundeak, beren arauak jartzen dituzte, eta gu gure etsaiek ezartzen diguten jokoan sartzen gera barruraino.

Herri honetako politikariek askotan hitz egiten dute gure egoera okupatuaz, baina gero, sekulako kontraesanetan erortzen dira. Edo bestela, nola ulertu daiteke adibidez hainbeste defendatzen den erreferendum famatua? Erreferendum honen defendatzaileek diotenez, herri honetan bizi geran guztiok bozkatzeko horretan parte hartzeko eskubide berdina izango genuke, "esklusiorik gabe eta baldintza demokratikotan" egindako kontsulta izango omen da eta nire ustez planteamendu hau, edo antzekoa izan daitekeen beste edozein (hauteskundeak....) guztiz okerrak dira, duten izaera antidemokratikoa dela eta. Izan ere, Euskal Herrian, erakundearen, komunikabidearen, ekonomiaren, kulturaren eta indar militarren kontrol guztia okupatzaileen esku dago, uneoro haien interesen alde jokatzeko dutelarik. Guzti honekin frogatzen da, herri honetako politikari gehienek, ez dutela benetan okupazioaren kontzeptua barneratu.

Horrela ez dut uste inoiz askatasunera iritsiko garenik. Oso argi eduki behar dugu ez gaudela okupatzaileekin berdintasun egoera batean, eta ondorioz, GUZTIZ EZINEZKOA dela ez erreferendum, ez hauteskunde eta ez ezer planteatzea. Edo, imajinatu al dezake inork Iraken etorkizunari buruzko erreferendum bat non AEBtako militar guztiek eta Irakeko biztanleek bozkatzeko aukera berdina izango zuten?

Laburbilduz, ez dago ez "baldintza demokratikorik" ez "marko demokratikorik" eta azken finean ez dago demokraziarik, munduko inongo herrialdetan askatasunik ez badu, eta askatasuna, herri batek bere errekurso eta erabaki guztien kontrola hartzen dituenean lortzen du.

Euskal Herriaren askatasuna ez da erreferendum batean erabakiko den zerbait. Lehenengo askatasuna dago (eduki edo ez eduki, bilduko dugun indarraren arabera izango da), eta



gero antolatuko ditugu erreferendumak, baina beste maila bateko gauzei buruzko erabakiak hartzeko, eta guk jarritako baldintzekin, noski.